

“Jakin eta Erein”, Zientziaren, Artearen eta Kulturaren balioak eta garrantzia zabaltzeko eta eskualdeko gazteen bokazioa bultzatzeko antolatzen den ekintza bat da, eta helburu du, besteak beste, gazteei ekintzailtza prozesuetan eta teknologia berrien eta ekonomiaren arloan laguntzea. Alberto Albistegui buru duen Eibarko Udalaren Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza udal sailak sustatzen du egitasmoa, eta Enrique Zuazua matematikari eibartarrak zuzentzen du.

Ekitaldiaren lehen edizioa 2018ko azaroaren 7tik 11ra egin zen Zientziaren Astearren Barruan. Urte hartan Eibarren egin zen lehen aldiz. Hori dela eta, hitzaldi ziklo bat antolatu zen Eibarko hainbat arlotako adituekin, eta amaitzeko, ekitaldi bat egin zen Eibarko Coliseo Antzokian.

2019ko urriaren 30ean, UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren Eibarko egoitzan, “Energia berriztagarriak: Etorkizuneko aukerak / Energías renovables: oportunidades futuras” izeneko jardunaldi bat egingo da Unibertsitateko ikasleentzat, eta Eskolako bertako irakasleek eta hiriarekin lotura duten beste aditu batzuek beren ikuspegia emango dute enpresa esperientzia berritzaileenei eta sektoreak dituen erronkei buruz. Oihana Aristondok, GIEko Eibarko ataleko koordinatzaileak, koordinatuko du jardunaldia.

Ekitaldia “Energia Berritzaileak” karrera amaierako ikasleentzat dago pentsatuta batez ere, gutxi gorabehera 60 ikaslerentzat. 20 minutu inguruko aurkezpen batzuk egingo dira hasieran, Energiaren sektoreko hainbat alderdiri buruzkoak, hala alderdi zientifiko edo teknologikoago bat lantzen dutenak nola ekonomia jasangarriarekin edo inpaktu sozialarekin eta ekintzailtzarekin lotutakoak. Gero, ikasleak beraiek izango dira protagonistak; izan ere, eztabaida eta hausnarketa batean parte hartuko dute. Horretarako, lan mahai batzuk antolatuko dira, bakoitza gai batekin, eta hor beren ideiak emango dituzte, baliagarriak izan daitezkeenak etorkizunean unibertsitatean bertan proiektuak gauzatzeko edo ekintzailtzarako.

Jarduera hiru hizkuntzatan egingo da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

## EGITARRAUA

### 11:15 Ongietorria eta irekiera

*Alberto Albistegui*, Eibarreko Udaleko zinegotzia, eta *Oihana Aristondo*, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko ataleko koordinatzailea

### 11:25 Jardunaldiaren aurkezpena

*Enrique Zuazua*, “Jakin eta Erein” zikloaren koordinatzailea

### 11:35 Aldaketa klimatikoa eta planetaren energia

*Alain Ulazia*, UPV/EHU

### 11:55 Startup berriak: Estoniako esperientzia

*Eneko Erauzkin*, “Kaixo Estonia” elkarte burua

### 12:15 Efizientzia energetikoa bizitegi sektorean

*Javier Sánchez*, Ingurubide-Berdeago

### 12:35 Termoekonomiaren aplikazioa etxebizitzetako instalazio termikoen energia diagnostikorako

*Arrate Hernandez eta Ana Picallo Perez*, UPV/EHU

### 13:00 Zientzia eta garapen jasangarria (garapen jasangarrirako helburuak)

*Cristina Peña*, UPV/EHU

### 13:15 Bazkaria

### 14:00 Hausnarketa eta eztabaida

### 16:15 Ondorioak (ikasleen eskutik)

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola - Eibarko Atala  
Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa - Sección Eibar  
UPV/EHU



# JAKIN ETA EREIN

EIBARKO ZIENTZIA JARDUNALDIAK 2019

Energia berriztagarriak:  
Etorkizuneko aukerak

Energías renovables:  
Oportunidades futuras

URRIAK **30** OCTUBRE

